



ANTXOA

HILEROKO PREZIOEN GARAPENA



Nahiz eta Europar Batzordeak kuota handitu eta arrantzaleek aurreikuspen onak izan arren, antxoaren kanpainak ez ditu arrantzaleak asebeste. Azken hilabete honetan, prezioa %14 eta %9 igo da merka eta helmugan hurrenez hurren. Kasu bietan, jasoriko kotizazioa urteko altuena izan da.


Prezioak (€/kg)

	Jatorri	Merkatu	Helmuga
Azken hilabetea *		6,43	8,10
Aurreko hilabetea *		5,62	7,42
(1) Aurtengo kanpainaren *	3,86	5,23	7,71
(2) Aurreko kanpainaren *	2,57	4,49	7,34
Bariazioa (1)/(2)	50%	16%	5%

* Bataz besteko prezioa

Abenduan ez da antxoarik porturatu euskal kofradietan, 2012ko kanpaina bukatu baita. Aurtengo kanpaina amaitu da eta irailean ez da antxoarik porturatu Euskadiko kofradietan. Kanpaina honetan 5.631 tona antxoa arrantzatu da, iaz baino %24 gutxiago.



URTETIK URTERAKO PREZIOEN ALDAKETA



Oro har, 2012ko kotizazioak 2011ean jasotako gainetik izan dira, abenduan urte arteko bariazioa positiboa izan da, %29 eta %3 merka eta helmugan hurrenez hurren. Bai urte arteko zein hilabete arteko bariazioak prezioaren aldakortasun handia argitan uzten dute.

ANTXOA

ANTXOAREN BALIO KATEA



Antxo
Engraulis encrasicolus

Harrapaketa metodoa edo arrantza erremintak: Arrantza amotarik erabiliena baxurako arrainontziek egiten duten gaueko inguraketa-arrantza eta radar edo eko-sonda bidezko sarda-detekzioak dira. Ahala ere, gure inguruko herrialdeetan arraste-arrantza ere erabiltzen da.

Tamaina:

- Gehienekoa: 20 cm.
- Ohikoa: 15 cm.
- Gutxienekoa 9-12 cm kalaren arabera.

Ezaugarri nabarmenenak:

- Eguneko arraina.
- Urtarokotasun nabarmena. Antxoaren kostera apirila eta uztaila bitarte luzatzen da Kantauri itsasoan. Gainerako hilabeteetan inportazioak dira batik bat.
- Bere haragi eta zapoeragatik oso preziatua da merkatuan. Freskoan zein kontserbatan edo gatzatu gisa kontsumitu daiteke, azken bi hauetan industria aktibitate handia sorraziz.

Informazio iturria: VV.AA. (2008). *Pescados y mariscos. Guía práctica*. Madrid: Mercasa.

Habitata: Espezie pelagikoa, neguan kostatik urrun eta 150 metroraingo itsas hondo lohietan bizi da. Udaberri-uda partean azaleratu eta kostara hurbildu ohi da gazitasun baxuagoko eta ur epelagoetan arrautzak jartzeko. Estuarioetan aurki daiteke. Talde seneko arraina da, sarda handietan mugitu ohi da filtratzen duen zooplanktonaz elikatzeko. Ale gazteenak “chanquete” izenez ezagutzen dira, eta helduaroa urte baten buruan lortzen dute, nahiz eta zazpi urtez ere bizi daitezkeen.

Deskribapena: Igerilari ona, gorputz mehea, 10 eta 18 zentimetro bitartekoa, albiz begirata zapala. Bizkarraldean kolore urdin-berde bizia du, sabelaldera iritsia ahala argitzen doana, zilar kolorea hartu arte. Gorputza aise galtzen dituen ezkata txiki eta iraunkorrez estalia du. Ahoa, duen mutur finaren azpialdean kokatzen da, betazal gabeko begi bakoitza baino atzerago iristen dena. Sardinaren solomoaren erdialdean bizkar hegatsa dago, eta honen bukaeran sabel aldean uzki hegatsa kokatzen da, zeina espezie honen ezaugarri bereizleetakoa bat den. Azkenik, isats hegatsa urkilatu xamarra du.